



Josu Agirre Goitia
Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendaria
Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetza
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Jaun hori,

Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan urtarrilaren 19an, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

Bestalde, kontuan harturik Lege Aurreproiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak daudela, bete da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakian jasotakoa, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

1978. urteko Espainiako Konstituzioaren 43.3 artikuluari jarraiki, botere publikoek hezkuntza fisikoa eta kirola sustatuko dituzte.

Euskal Autonomia Erkidegoko araudiari dagokionez, Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren arabera autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du kirol arloan (10.36 artikulua). Halaber, bakarreko eskumena du lanbide-elkargoen eta lanbide tituludunen jardueraren gainean, Konstituzioaren 36. eta 139. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe (10.22 artikulua).

Eskumen horien babesean onartu zen ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena. Legearen 4.2.h) artikulua arabera, autonomia erkidegoko erakunde

komunei dagozkien eskumenen artean dago kirol-teknikariak prestatzeko zentroak eta horietako irakaskuntzak eta tituluak arautzea, ofizialki onartzea eta bultzatzea.

Orobat, legearen 62. artikuluan jasotzen denez, kirolarekin zuzenean lotutako zerbitzuak, hots, irakaskuntza, zuzendaritza, kudeaketa, entrenamendu, sustapen eta bestelakoak, eskaini ahal izateko, aginte publikoek, beren eskumen-esparruaren barruan, dagokion titulu ofiziala eskatuko dute, eta legea garatzeko xedapenen bidez zehaztuko da norainokoa izango den bateko eta besteko eremuetan titulazioen nahitaezotasuna. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoak eta kirol federazioak titulazioen eskakizuna behar bezala betearazteaz arduratuko dira.

Bestalde, aipatzekoa da azaroaren 21eko 18/1997 Legeak tituludun lanbideak eta profesionalen elkargo eta kontseiluak arautu zituela.

Arau horiek aintzat hartuta, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-arloko lanbideetan sartzeta eta jardutea arautuko da.

Lege Aurreproiektuaren 1. artikuluan helburua eta aplikazio-eremua finkatzen dira, 2. artikuluan kirol-arloko berezko lanbideak, funtzio-eremu orokorra eta kualifikazioak lantzen dira, 3. artikuluan Gorputz Hezkuntzako Irakasle lanbidea, 4. artikuluan Kirol Monitore lanbidea, 5. artikuluan Entrenatzaile lanbidea, 6. artikuluan Kirol Zuzendari lanbidea, 7. artikuluan kasu berezietako kualifikazio-baldintzak, 8. artikuluan kualifikazio eta titulu ofizial berrietara egokitzea, 9. artikuluan izenen erabilera, 10. artikuluan elkargoko kide egitea eta Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa, 11. artikuluan lanbidean jarduteko printzipioak eta betebeharrak, 12. artikuluan lanbide-sozietateen bidez jardutea, 13. artikuluan erantzukizun zibila bermatzea, 14. artikuluan bestelako baldintzak, 15. artikuluan lanbideetan legearen babespetik at jardutea, 16. artikuluan arau-esparru erkidea eta lehia askea, 17. artikuluan beste estatuetan lortutako lanbide-kualifikazioak onartzea, eta 18. artikuluan kontsumitzaile eta erabiltzaileen osasuna eta segurtasuna babestea. Azkenik hamahiru xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzailea eta sei azken xedapen daude.

Beraz, aipatutako Lege Aurreproiektua aztertuta, euskararen erabileraren gaineko eraginik ez duela izango adierazten dut.

Halere, ohartarazi behar dugu Aurreproiektuaren 10. artikuluan aipatzen den Kirol-arloko Profesionalen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistro publikoak euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko duela, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 7. artikuluan xedatutakoarekin bat, eta horrela jaso beharko litzatekeela dagokion erregelamendu arauan.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 30ean.

Ángel Lobera Revilla

Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria